BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA XII. AGINTALDIA

Serie B **Información, control e impulso**

XXII **Pregunta escrita**

Informazinoa, kontrola eta sustapena **B Saila**

Idatzizko erantzun-eskea **XXII**

Bilbo, 2026ko irailaren 18a
Número 524a Bilbao, 18 de septiembre de 2026 524a alea

ASUNTO: Cumplimiento PNN cambiadores inclusivos

AUTOR: De Madariaga Martin, Eneritz

Admisión a trámite

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 15 de septiembre de 2026, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

Tramitación: Admitir a trámite.
Calificación: Conformidad con la calificación propuesta por el autor

Procedimiento de Tramitación: Normal
Plazos:
Remisión respuesta escrita por la Diputación Foral: 15 días
Otros acuerdos
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
Regulaciones:
Reglamento: Artículo 170 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 15 de septiembre de 2026.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Eneritz de Madariaga Martín, portavoz del Grupo Juntero Elkarrekin Bizkaia en las Juntas Generales de Bizkaia, al amparo de lo establecido en el vigente reglamento, presenta las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO, relativas al cumplimiento de la Proposición No de Norma sobre cambiadores inclusivos.

El 28 de junio de 2024, las Juntas Generales de Bizkaia aprobaron por unanimidad una Proposición No de Norma por la que se instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a impulsar la implantación de cambiadores inclusivos destinados a personas con grandes o complejas necesidades de apoyo en la higiene.

El acuerdo contemplaba, entre otras actuaciones, la realización de un estudio sobre las personas potencialmente usuarias y las ubicaciones estratégicas para la instalación de estos equipamientos; la elaboración de un documento de planificación con la participación de las entidades y personas afectadas; la valoración de la apertura de los baños adaptados de la red de centros de día forales como solución transitoria; y la visibilización de dicha red mediante material informativo y señalización.

GAIA: Aldagela inklusiboei buruzko ABParen betearazpena

EGILEA: De Madariaga Martin, Eneritz

Izapidetzeko onartzea

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2026ko irailaren 15ean izandako bileran:

Izapidea: Izapidetzeko onartzea
Sailkapena: Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

Prozedurea: Arrunta
Epea:
Aldundiak idatzizko erantzuna bialtzeko: 15 egun
Beste erabagi batzuk
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
Araudi oinarria:
Araudia: 170. eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2026ko irailaren 15ean.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Eneritz de Madariaga Martínek, Bizkaiko Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia batzarkide-taldeko taldeburuak, indarrean dagoan Araudian ezarritakoaren arabera, IDATZIZKO ERANTZUN-ESKE honeek aurkezten ditu, aldagela inklusiboei buruzko Arauz Besteko Proposamenaren betearazpenari buruz.

2024ko ekainaren 28an, Bizkaiko Batzar Nagusiek Arauz Besteko Proposamen bat onartu eben aho batez, eta, hain zuzen be, horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen jakon aldagela inklusiboen ezarpena sustatzeko, higiene arloko laguntza-beharrizan handia edo konplexua daukien personentzat.

Erabagiaren barruan sartzen ziran, besteak beste, erabiltzaile potentzialei eta ekipamentuon kokapen estrategikoei buruzko azterlan bat egitea; eragindako erakunde eta personen parte-hartzeari buruzko plangintza-agiri bat prestatzea; eguneko zentroen foru sareko komun egokituak edegiteari buruzko balorazinoa egitea, aldi baterako konponbide lez; eta aitatutako sareari ikusgarritasuna emotea, informazino-materialen eta seinaleen bitartez.

En respuesta a una primera solicitud de información formulada por este grupo juntero, el Departamento de Acción Social informó, en octubre de 2025, de los contactos mantenidos con AMALAN, FEKOOR y la empresa Gaman, así como de la recepción de diferentes informes, borradores y aportaciones. La Diputación Foral señalaba asimismo que esperaba disponer, a finales de 2025, del documento de contraste completo elaborado con estos agentes y comenzar posteriormente la siguiente fase.

Transcurrido el plazo señalado por el propio Departamento, se formulan las siguientes preguntas:

1. ¿En qué situación se encuentra actualmente el cumplimiento de cada uno de los cuatro apartados de la Proposición No de Norma relativa a cambiadores inclusivos, aprobada por las Juntas Generales de Bizkaia el 28 de junio de 2024?

2. ¿Ha finalizado el Departamento de Acción Social el documento de contraste que, según la respuesta al expediente 2133, preveía concluir a finales de 2025? Señalar en qué fecha se finalizó y dónde puede consultarse el documento.

3. ¿Se ha realizado el estudio sobre la situación y las necesidades de las personas y entidades potencialmente usuarias de los cambiadores inclusivos? Señalar en qué fecha se finalizó y dónde puede consultarse el documento.

4. ¿Se ha realizado el análisis de los lugares estratégicos del territorio de Bizkaia en los que podrían instalarse cambiadores inclusivos para generar el mayor impacto posible? Señalar en qué fecha se finalizó y dónde puede consultarse el documento.

5. ¿Se ha elaborado el documento de planificación para la implantación de cambiadores inclusivos previsto en la Proposición No de Norma? En caso afirmativo, señalar donde puede consultarse el documento y;

    a) ¿Qué actuaciones concretas contempla?

    b) ¿Qué calendario de ejecución establece?

6. ¿Qué entidades, asociaciones, personas usuarias o personas cuidadoras han participado finalmente en la elaboración del estudio, el documento de contraste y el documento de planificación?

7. ¿Ha adoptado la Diputación Foral de Bizkaia alguna medida para permitir el uso de los baños adaptados existentes en la red de centros de día forales por parte de personas con grandes o complejas necesidades de apoyo en la higiene, tal y como contemplaba la Proposición No de Norma?

    En caso afirmativo:

    a) ¿En qué centros se ha habilitado esta posibilidad?

    b) ¿Desde qué fecha?

    c) ¿Cuáles son las condiciones y horarios de utilización?

    d) ¿Qué procedimiento debe seguir una persona para acceder a estos baños?

    En caso negativo:

    e) ¿Qué razones han llevado a descartar o retrasar esta medida?

8. ¿Se ha elaborado y distribuido el folleto informativo previsto para visibilizar la red de baños adaptados de los centros de día forales?

9. ¿Se ha instalado la pegatina o señalización indicativa prevista en la entrada de los centros de día forales?

10. ¿Cuántos cambiadores inclusivos se encuentran actualmente en funcionamiento en edificios, equipamientos o espacios dependientes de la Diputación Foral de Bizkaia?

11. ¿Tiene previsto la Diputación Foral de Bizkaia instalar nuevos cambiadores inclusivos durante 2026 y 2027? En caso afirmativo: ¿Cuántos?, ¿En qué ubicaciones? Y ¿Cuál es el calendario previsto?

Bilbao, 4 de septiembre de 2026

Eneritz de Madariaga Martín,
Portavoz del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia

Batzarkide-talde honek aurkeztutako lehenengo informazino-eskaereari erantzunez, 2025eko urrian, Gizarte Ekintza Sailak azaldu eban zeintzuk izan ziran AMALAN, FEKOOR eta Gaman enpreseagaz izandako kontaktuak, eta hainbat txosten, zirriborro eta ekarpen jaso izanaren barri be emon eban. Era berean, Foru Aldundiak adierazo eban espero ebala 2025eko amaierarako eragile horreekaz guztiakaz osatutako kontraste-agiri osoa eukitea, gero hurrengo faseari ekiteko.

Sailak berak emondako epea igaro danez, galdera honeek egiten ditugu:

1. Momentu honetan ze egoeratan dago Bizkaiko Batzar Nagusiek 2024ko ekainaren 28an onartutako aldagela inklusiboei buruzko Arauz Besteko Proposamenaren lau apartaduetako bakotxaren betearazpena?

2. Gizarte Ekintza Sailak amaitu ete dau kontraste-agiria, kontuan hartuta, 2133 zenbakidun espedienteari emondako erantzunaren arabera, 2025eko amaierarako espero ebala agiri hori amaitzea? Zehaztu noiz amaitu zan eta non konsultau leiteken agiria.

3. Aldagela inklusiboak potentzialki erabiliko dituen personen eta erakundeen egoereari eta beharrizanei buruzko azterlana egin da? Zehaztu noiz amaitu zan eta non konsultau leiteken agiria.

4. Aztertu ete da zeintzuk izan leitekezan Bizkaiko lurraldeko leku estrategikoak aldagela inklusiboak ipinteko, eragina ahalik eta handiena izan daiten? Zehaztu noiz amaitu zan eta non konsultau leiteken agiria.

5. Egin ete da Arauz Besteko Proposamenean aurreikusitako aldagela inklusiboen ezarpenari buruzko plangintza-agiria? Erantzuna baiezkoa bada, zehaztu non konsultau leiteken agiria eta:

    a) Ze jarduketa zehatz dagoz jasota?

    b) Betearazpenerako ze egutegi dago ezarrita?

6. Azkenean ze erakundek, alkartek, erabiltzailek edo zaintzailek hartu dabe parte azterlanaren, kontraste-agiriaren eta plangintza-agiriaren prestaketan?

7. Bizkaiko Foru Aldundiak hartu ete dau neurriren bat eguneko zentroen foru sareko komun egokituak higiene arloko laguntza-beharrizan handia edo konplexua daukien personentzat edegitea baimentzeko, Arauz Besteko Proposamenean jasota egoan moduan?

    Erantzuna baiezkoa bada:

    a) Ze zentrotan emon da aukera hori?

    b) Noiztik?

    c) Zeintzuk dira erabilteko baldintzak eta ordutegiak?

    d) Ze prozedura jarraitu behar dabe erabiltzaileek komun horreetara sartzeko?

    Erantzuna ezezkoa bada:

    e) Ze arrazoigaitik baztertu edo atzeratu da neurri hori?

8. Prestatu eta banandu ete da eguneko zentroen foru sareko komun egokituei ikusgarritasuna emoteko informazino-liburuxkea?

9. Ipini ete da pegatina edo seinalerik eguneko foru zentroen sarreran, aurreikusita egoan moduan?

10. Gaur egun zenbat aldagela inklusibo dagoz martxan Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko eraikin, ekipamentu edo espazioetan?

11. Bizkaiko Foru Aldundiak badauka aldagela inklusibo gehiago ipinteko asmorik 2026an eta 2027an? Erantzuna baiezkoa bada: Zenbat? Non? Eta zein da aurreikusitako egutegia?

Bilbon, 2026ko irailaren 4an

Eneritz de Madariaga Martín,
Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaia taldeko taldeburua